



Baleike

Zumaiako herri aldirkaria. 19. zbkia. 1995eko abendua. 100 pzta.



Urolako angulen atzetik

Elkarrizketa

**Kandido
Urangarekin
hizketaldia**

Gaztedia

**Gazte
Batzordearen
Larraulerako
irteera**

Ze berri?

**Oikiako
frontoiaren
proiektua
lantzen ari dira**


(Javier Carballo utzitako argazkia)



Hor dituzue herriko futbol taldekoak, partiduaren atarian. Ezagutzen al dezue tokia? Juan Belmonte kalearen hasiera da, orain iturria dagoen inguru hori. Emakume eder bat ikus daiteke, banderina eskutan eta kopa aurrean duela. Ez zegoen behintzat min hartzeko beldurrik, hor baitzegoen Gurutze Gorriko enfermeroa dena sendatzeko.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



ZUMAIako INSTITUTUA
Aita Mari Auzategia, z/g
20750 - ZUMAI
86 08-09/86 08 10

Zumaiako Udalak diruz
lagunduriko aldizkaria



BALEIKE
HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea
tfnoa: 86 10 56
faxes: 861742

argitaratzailea
ZUMAIKO
GAZTE
BATZORDEA

Ian taldea

Iratxe Aizpurua
Esther Martinez
Itziar Manzidor
Xabier Azkue
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta
Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea, Miriam Romatet, Kepa Aizpurua, Aintzane eta konpainia, Imanol Manterola, Jon Ander Garcia, Jon Manzidor, Dani Carballo, Luis Mari Aizpurua, Javier Carballo, e.a.

publizitatea
861056 tlf.
inprimategia
Gertu Koop. E.
(Zubillaga - Oñati)

tirada: 800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKE ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Gutunak.....	4
Gai Librean.....	5
Ze Berri?: Iñaki Etxanizen sententzia. Oikiako frontoia.....	6
Elkarrizketa: Kandido Uranga.....	9
Erreportaia: Angularen arrantza	12
Inkesta fotografikoa: Erlojuaren menpe.....	15
Komikia: Jon Ander Garcia.....	16
Sexualitatea: Muxu txuriak.....	18
Olarru-zopa:.....	19
Antimilitarismoa: Kode penal berria.....	20
Gaztedia: Larraulerako irteera.....	22
Pertsonaiak: Txoritxiki.....	23
Izerdi patsetan: Zumaiarrak Behobian. Ziklo-krosa.....	24
Kultur Agenda:.....	26
Musika: DUT. Kashbad.....	28
Denborapasak:.....	30
Merkatu txikia:.....	31
Kontraportada:.....	32

DIN, DAN, DON, ...

Din, dan, don, gabonak datoz. Txokolate berodun egunak, manta azpiko telebista saioak, tripa festa ederrak, eta azkenean, urteko azken mozkorra. Gabonetan munduko diru guztiak gastatzen ditugu, dauzkagunak eta ez dauzkagunak. Egun hauetako erregea ez da Juankarlos, ez Olentzero ezta urtarrilaren 6ko erregeak ere; kontsumismoa da errege. Aurrean belaunikatu eta bere menpean jartzen gera ... Bueno, Gabonak (teorian) alaitasunean pasatzeko egunak direnez, hobe det ixiltzea. Gainera urte bukaera arte pixka bat zai egon behar denez, zer hobeto Baleike berria baino. Zenbaki honetako gaiak hor, aurkibidean dituzue ... eta badakizue: Din, dan, don... din, dan, don, eguberri on ...

J.L. Romatet

PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 2172
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

MUXUBELTZA DELA -ETA


Nahiko harrিতта geratu naiz Baleiken Muxubeltza aldizkariari buruz idatzitako artikulua irakurri dudanean. Harrিতта diot, burua dagoeneko failatzen hasi ez bazait behintzat, garai hartan aldizkari hark sortu zuena flipeaz aparte polemika izan zelako. Polemika, berriz ere Sexualitatea edo Erotismoari buruzko aldizkari batean emakumearekiko jarrera ohizko aldizkarietako berbera zela ikusi zelako.

Laupabost orrialdetan ikaragarriko astakeriak irakurri ahal izan genituen, adibidez "Relatos malditos: lecciones a una niña de 13 años".

"¿Pero qué me dices, que ya no eres virgen? Llevas el mismo camino de zorrerío que yo, qué se le va a hacer. Y dime ¿quién te desvirgó? ¿fue el maestro? ¿fue tu hermano mayor? o ¿fue el criado? ¡qué me dices, que fueron los tres! Me dejás muda. eres más puta que yo y ya es decir (...) Veo hijita, que no te hace falta ningun consejo. Eres una mujer con todas las de la ley".

Bati baino gehiagori parregurea eman zion holako astakeriak irakurrita, baina neri, emakume bezala, amorrubizia sortarazi zidan berriz ere gure papera zer nola adierazten zuen ikusita. Ez

GUTUNAK



Atal honetan zumaia arron ohar, iritzi, kexa guztiak bildu nahi genituzke. Idatzi beldurrik gabe, NA zenbakia ahaztu gabe, eta utzi ezazu Forondan edo eta Joxe Manuelen kabinan.

dut inoiz dudetan jartzen aldizkari hau egin zutenek intentzio onak zituztela, baina "nahigabe" betiko jokoan erori ziren emakumeon papera, sexualitate mailan, objeto soil bezala erakutsiz.

Laupabost orrialdetan ikaragarriko astakeriak irakurri ahal izan genituen

Guk ere badugu bizitza sexual bat, eta bere osotasunean bizi ahal izateko ez dugu "La chispa de la vida" edo antzeko ezere beharrik. Guztiok dauzkagun frustrazioak gaindituko bagenu, dena askoz hobeto joango litzaiguke. Agian, Amaia plazan rubia despanpanante batekin izandako ametsa beste modu batean gauzatu genuke, "sexualitate aske eta dohain batengandik".

**IGONE
(N.A. 72.442.761)**

ITZURUN IRRATIAK ZUMAIKO HERRITARREI

Aldizkari honek azaroko zenbakian kaleratu zuen Jose Maria Etxabek sinatutako idatziaren aurrean, gertatutako guztia aztertu ondoren, honako hau argitu nahi dugu, oraingoz:

1.- J.M.E.-k aipatzen dituen espektro radioelektrikoko akatsak ekipo emisorean izandako aberia baten ondorio izan daitezkeela; aberia hau Itzurun Irratia berak topatu zuen idatzia azaldu eta berehala, eta aipagarria da momentu hartan ez zela inolako aldaketarik somatu FM bandako bestelako frekuentzietan.

2.- Ez da inoiz emisora honen asmoa izan bestelako programazio aukera bat, euskaraz edo beste edozein hizkuntzatan, entzun nahi duten pertsonen kalte egitea, ezta FM guztia hartzen saiatzea ere; munduko irrati-difusore

guztien modura energia guztia frekuentzia berean radiatzen saiatzen gara.

3.- Zuzenean Itzurun Irratiko estudioetara etorri, denbora aurreratuko zela iruditzen zaigu, eta ez idatzia DVn argitaratuz.

Edozein kasutan, J.M.E.-ren idatzian deskribatutako akatsa ekipo horrek sortu ote duen ikusteko ekipo-transmisorea azterten daukagula adierazi nahi genuke, eta emisioekin lehenbailehen berriz ere hastea espero dugula.

ENRIQUE ARCE PEÑACOBIA

(Itzurun Irratiko zuzendaria)

OISTOKO ITURRIA

Denok ezagutuko duzue Elorrira eramaten gaituen bidea. Bide horietako batean dago Oistoko iturria. 50.hamarkadan egina, Zumaia mendizale gazte talde batek, eta duela 4 edo 5 urterarte zumaia eta oro har mendizale guztiok hango ur ederra edateko aukera izan dugu. Baina zoritxarrez Pikoteko lagunek etxerako ur beharrean aurkitzen ziren eta ordutik aurrera ez dugu hango ur gehiago edateko aukerarik izan. Egia esan, iturri hau ezagutu dudanez, konpontze txiki bat gaizki ez litzaioke eta etorriko uste dut.

J.M.O.

**kukutz
SERIGRAFIA**

- ★KAMISETAK
- ★KAPELAK
- ★TXISKEROAK
- ★TXANDALAK
- ★PAPELEZKO POLTSAK

Narrondo 8, 2. esk Tfnoa: 860569

Erribera Kalea, 6
Telefonoa: 86 17 07
Fax: 86 17 07
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



IBON AIZPURUA
"EPI"

futbolmania

Futbolaz hitz egitea gaur egun arriskutsua izan daiteke, batez ere kritikatzeko denean. Baina beste ezer ez zait bururatu afaldu ondoren telebista piztu eta asteko zazpi egunetan bezala gaur ere futbol "madarikatua" dagoela ohartzean.

Fenomeno soziala bihurtu dela dudarik ez dago. Askok kirol hau besterik ez dute buruan eta jokoz kanpo bat ez denean bezperako partiduko gol bat dute hizketagai bakarria. Horren adibide garbia aurtengo udaran izan dugu, ustez futbolak beste kirolei tarte egiten dien sasoi bakarrean. Mundu guztia bi futbol-taldeei begira jarri zen dirua ez ordaintzeagatik mailaz jeitsi behar izan zituztelako. Eta hilabete osoan gai hori izan zen hizpide bakarria. Lotsagarria.

Fenomeno honen eragileak aurkitzea ez da erraza, baina hauen artean agintariak egon daitezke. Tontoak ez direnez denoi buruan futbola sartzea pentsatuko zuten, horrenbeste azpijoko eta trapu zikin ezkutatu nahian dabiltzan garai hauetan zertan dabiltzan inor kontura ez dadin. Beste eragile bat Mano Negra izan daiteke, bere "Santa Maradona" kantuz mundu guztia "futbol, futbol, futbol" abesten jartzea lortu baitute.

Gauzak horrela, zer egin behar dugu orduan futbolaren eraginik jasan gabe bizi nahi dugunok? (batez ere asteburutan). Lehenengo telebistara zenbat eta gutxiago hurbildu hobea. Bigarrenik egunkaritako kirolen lehen orriak azkar pasa. Eta azkenik, igande arratsaldetan irratirik ez piztu. Neurri guzti hauek hartuta ere ziuraski ez da nahikoa izango, zeren beti etorriko baitzaizu norbait esanez:

- Hi, ikusi al huan atzoko partidua? Hoi dek gola!!

Eta zuk "bai, bai, hala huen" esan orduko eskakeatzen ahaleginduko zara edozein txorakeri aitzakitza hartuz.

Beraz, badirudi ezinezkoa (edo gutxienez oso zaila) dela futbolaren kulturatik at bizitzea. Nik behintzat ezin izan dut modu horretara bizi ahal izateko harri filosofala aurkitu eta jadanik telebistako partidua emozioa hartzen ariko denez, ikustera noa. Agur.

20 urte
Franko hil
zala




Andoni Manterola

Doinua:
"Nafarroako mendi gainetan"

Bertso artean orain nik zuei
noa zerbait esatera
euskaldun zaharrak egondu ziran
diktaduraren menpera
ez zuten izan beren hizkuntzan
hitz egiteko aukera
hainbat urtetan euskaltzaleak
esklaboak izan gera

Patxi zaharra jun zan egunez
hainbat parre ta algara
batzuk oraindik negarrez daude
ta gu parrez beharbada
zeruan dabil aspalditikan
askatasunan enara
egunen batez euskal lurrean
biok elkartuko gara



BELARDENDA
SIWA



Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d TIF: 143079



Amaiako plaza, 7
Tel.- Fax: 862385
20750 ZUMAIA

Iñaki Etxanizek jaso du sententzia



Berak uste baino zigor haundiagoa jaso du Iñakik.

Lehenago hilean izan zuen epaiketaren ondoren iritsi zaio sententzia, eta 2 urte, 4 hilabete eta egun bateko gartzela-zigorra jaso du. Berak ez zuen halako zigorrik espero

eta epaileak berak ere sententziako 4. puntuari zigorra gehiegizkoa dela aitortzen du eta Gobernuari eskatzen dio gartzeleratzea ez den bestelako zigor batzuentatik alda dezala.

Honelaxe dio epailearen erabakiak:

"Debo condenar y condeno a Iñaki Etxaniz Osa como autor del delito de negativa a la realización del servicio militar del artículo 135 bis i) del Código Penal, sin la concurrencia de circunstancias modificativas de la responsabilidad criminal, a la pena de dos años cuatro meses y un día de prisión, inhabilitación absoluta durante el tiempo de la condena, y pago de las costas procesales causadas".

Lotsagarria, ezta? Amaieran, epaileak berriz ere indultoa eskatzen dio Justizia Ministroari. Beraz, Iñakik ez du oraingoz gartzelara joan beharrik izango. ■

Mikel Urkidi sententziaren zai

Lehenago azaroaren 21ean epaitu zuten Madrilen, beste bi lagunekin batera (Zarautz eta Lazkakoak). Berak deklaratu ondoren, lekukoa zen polizia bat falta zenez, ostegunean berriz ere Madrilerara bueltatu behar izan zuten, epaiketarekin jarraituz. Herrian asanbladak eta manifestazioak izan ziren, eta argazkian ikusten denez zenbait zumaiarren babesa izan zuen han bertan. Sententziaren zai dagoelarik, itxaropentsu agertzen da Mikel. ■



Zumaiatik talde bat ere joan zen Madrila, elkartasuna adieraztera.

IZETA
orrasategia



Urumea 6
Tlf: 862083

ZUMEA
TABERNA



Erribera kalea, 2
Telefonoa: 861125
ZUMAIA

Enduñoleu Zumaiak



• SUKALDERAKO ALTZARIAK
• ELEKTROGAILUAK
• BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8
Telefonoa: 861694



Oikiako frontoiaren proiektua lantzen ari dira

Oikiarrek azken urteotan egin duten eskaera nagusia hauxe izan da eta pozteko arrazoiak badituzte, Iñigo Unanue arkitekto zestoarra proiektua lantzen ari da-eta. Seguruena proiektua hurrengo urtearen

erdikalderako amaitua izango da, eta kokalekurik egokiena elizaren atzekaldean dela pentsatu da.

Oraindik ere hari guztiak lotzeko daude, baina badirudi estalitako frontoiaren ametsa egia bihurtuko zaiela oikiarrei eta laister umeak jolasteko, pilotan aritzeko, festetarako, bertso saiouetarako, edozer gauza egiteko toki egoki baten jabe izango dira.

Oraintxe ikusi da urteotako eskaera, protesta eta lanek beren fruitua eman dutela. Ea noiz estrenatzen degun! ■



Narrondo ibaiko lanak martxa onean



Nola doazen ikusita, udarako lanak amaitzea espero dute.

Mariezkurrena enpresako langileak jo eta ke ari dira lanean, bestaldeko barandilako "injineruen" begiradapean. Horma sendo bat eraikitzen ari dira lehenbizi eta lanak

dexente erraztu zaizkie, lehenko kanalizazioko horma batekin egin baitute topo. Martxa honetan jarraituz gero, lanak maiatzerako amaituta izango dira. ■

Arritokietan obretan

Arritokietako ermitan berriz ere lanean hasi dira, denboraldi batean geldu egon ondoren. Izan ere lehengo ate zahar batzuk azaldu dira eta azertu bitartean zai egon dira. Itxura denez, humedade edo hezetasun asko sartzen zen eskubialdeko hormatik eta lan hauekin arazoa konpontzea espero da. Bitartean Arritokietako Ama Birjinaren irudiak Parrokian jarraitzen du.



Auto - Konponketak

ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

DISKO-BAR



Alai Auzotegia 2.

Julene Azpeitia sariak erabakita

Hilaren batean erabaki behar zituzten ipuin lehiaketa honetako sariak; beraz, ezin izan ditugu irabazleen izenak bildu. Hori bai, esan dezakegu 27 lan aurkeztu direla guztira, hauen artean 9 zumaiarrenak. Epaimahaia Mariasun Landa, Begoña Muruaga, Joxean Agirre eta Nerea Azurmendik osatzen dute.

Lehen saria 325.000 pezetakoa da, bigarrena 150.000koa eta zumaiarren arteko ipuin hoberenari 125.000 pezeta emango zaizkio. Sari banaketa abenduan bertan izango da Foronda Kultur Etxean. Ekitalditxoren batekin izango da, eta eguna, ordua eta bestelako xehetasunak garaiz iragarriko dira.



Iazko irabazleak, epaimahaikide eta agintarien artean.

Herriko musikazaleak Santa Zezili ospatzen

Abenduaren 26an Bandaren kontzertua izan genuen Aita Mari zinean. Ondoren bazkaria izan zuten eta arratsaldean giro ederra sortu zen Erribera kalean. Batetik Festatxo taldekoak zebiltzan, tabernaz taberna umore onean; bestetik bandakoak dantzaldi inprobisatuak antolatu zituzten kalearen erdian eta banda bertako partaideak ere dantzan aritu ziren. Gaueko 10etarako eguerdian baino gehiago desafinatzen zutela esan digute batzuek.



Kendu paretik, txo!!

Postal lehiaketa



Gu Ez Goaz talde anti-militaristak antolatu duen Gabonetako postal lehiaketako irabazleak ere erabakita daude dagoeneko eta izenak berehala emango dira aditzera. Orain gartzelan dauden insumisoei eta koartelelan dauden zenbait gazteri postalak idaztea besterik ez da falta.

Hitano ikastaroa

Abenduan bertan hasiko da ikastaro interesgarri hau. Larunbat goizetan emango dira klaseak, eta helburua Zumaiako hikako formei eustea denez, praktikari emango zaio garrantzia batez ere. Egunak zehazten direnean kartelak jarriko dira deialdia ginez.

Bestalde urtarrilaren 16tik aurrera **Idazketa Tailerra** izango da aurten ere. Sei larunbatetan oinarrizko ikastaroa emango da; eta jarraian otsailaren 24tik aurrera beste seitan sakontzeko ikastaroa izango da. Hala ere, urtarrileko zenbakian informazio gehiago ematen saiatuko gera.

AIZMAN-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA
ERAIKUNTZA MATERIALA

Iraeta
auzoa z/g
Aptdo. 78

Tlf/Fax: 14 81 24
20740 IRAETA -
ZESTOA

NIKOL-ENE
taberna
Amaiako plaza Tfnoa. 861440

Kandido Uranga aktorea da. Antzeppen munduaren medio ezberdinak ezagutzen ditu, antzerkian, telebistan, zinean eta bikoizketa lanetan aritua baita.

Kandido Uranga

bihurtu da zinezaleentzat. Tripako min eta buruhauste ugari sortzen omen dizkio zineak, baina, era berean, zerbait erakargarria duela aitortzen du. Hori bai, argi utzi nahi

77an Leioako unibertsitatean bere lehen obra antzeztu zuenetik lan ugari egin ditu, eta nahiz eta bere ogibidea bikoizlearena izan, azken urteotan aurpegi ezaguna

izan du glamourra ez doala berekin eta lanbide benetan gogorra dela. Nahiz eta oso lanpetuta ibili, tarte bat hartu du gurekin hitz egiteko.

"Aktoreak dena eman behar izaten du bera baita bere lan tresna"

ZINEAN ARITZEN DIREN AKTOREEK ASKOTAN ESATEN DUTE TARTEKA ANTZERKIA EGITEKO BEHARRA IZATEN DUTELA. ESZENATOKI GAINEKOA AL DA BENETAKO ANTZEZPENEA?

Ez, ez nago ados horrekin. Bi medio ezberdinak dira, baina bietan antzeztu egiten da. Teknika ezberdinak dira baina oinarri berdina dute: antzezpena. Bat edo bestea aukeratzea beti proiektuaren arabera dago, baina argi dago gaur egun antzerkiaokerrago dagoela. Biak dira jendeak istorio bat sinistu dezan sortutako konbentzioak, baina antzerkiak zailagoa du helburu hori lortzea jendeak bertan ikusten baitu aktorea. Zinean pantailan ikusten ditugu gauzak eta jendea predispodisizio handiagoa du ikusten duena sinisteko.

ZINEA, ANTZERKIA ETA TELEBISTA PROBATU DITUZU. ZE EZBER-



"Pasajes" filmerako "look" berria du, ile motx-motxarekin.

DINTASUN DAUDE HAUEN ARTEAN ANTZEZPENARI DAGOKIONEZ?

Oinarri berdina izanda, teknika ezberdinak dira. Antzerkian dena kolpe batean eta zuzenean egiten da. Ikuslea ere aurrean duzu. Zinean berriz, ikuslea kamara da, eta kamara hau da egon daitekeen ikuslerik finena,

dena jaso eta gordetzen baitu.

Gainera zatika egiten da, inolako ordenik mantendu gabe. Horrek zailtasunak sortzen ditu pertsonaien garapenez jabetzeko. Eta telebistak zerikusia du zinearekin, baina 4,5,6 kamarekin egiten da lan eta muntaia azkarragoa da.



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
20750 ZUMAIA

Telefona: 861433
Fax: 861067

MATTE
ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen
sendabidean

Amaiako plaza z/g Tif: 143278




Loitz

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuademazioak
- Plastikazioak
- Fax Publikoa
- Aldizkari eta Opariak

Erribera Kalea, 4
Tel. Fax: 14 34 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Aktorearen lana gogorra da ikuslearen aurrean zeure barrena biluztu behar baituzu. Esaten da aktoreak exhibizionismo puntu bat duela, eta izan daiteke.



"Dolar Mambo" pelikula Mexikon grabatu zuen eta oso guapo agertzen zen.

ORAIN "PASAJES" FILMEA EGITEN ARI ZARA KALPARSOROREKIN. EGINDAKO FILMEETATIK ZEIN DA GEHIEN GUSTATU ZAIZUNA?

Begira, nik zinea ez dut behin ere gustora egiten. Nik oraindik ez dut gozatu. Egin egiten dut. Baina gaizki pasarazten dit. Hala ere, horrek badu bere konpentsazioa. Badauka jendea, proiektu batean parte hartu izana...

ETA FILME BAT AMAITU ONDOREN, ZER SENTITZEN DUZU ZEURE BURUA PANTAILAN IKUSTEAN?

Hasteko esan behar da oso gogorra dela norberaren burua ikustea bereak ez diren egoeratan. Bere burua mundu guztiaren aurrean jartzen du; aktorearen lan tresna bera da, bere osotasunean. Aktoreak bere barrena biluztu behar du ikuslearen aurrean. Horregatik esaten da aktoreak exhibizionismo puntu bat duela. Lanbide honetan asko arriskutzen da. Jendearen erantzuna ona bada, pozik

sentitzen da, baina hala ez bada, Saharako azken muturrean nahiko luke egon. Ez luke nahi inor ikusi, ezta ere inork ikustea, gehiegi esponitu delako. Baina arrisku hori dauka.

PAPER BAT EGITEKO ESKATZEAN, NOLA HELTZEN DIOZU PERTSONAIA HORRI?

Gidoia ondo irakurri ondoren, zure pertsonaiaren historia fabrikatzea da garrantzitsuena. Askoz inportanteagoa da gidoian agertzen ez dena jakitea agertzen dena baino. Azken finean gidoia argazki bat bezalakoa da, pertsonaia horren bizitzan une bat baino ez. Horregatik beharrezkoa da jakitea non jaio zen, zein neura dauzkan,... Baina batez ere aztertu behar da nola sentitzen den pertsonaia hori. Azken finean, esan dezakezu: nazkatuta dago. Baina zer da nazkatuta egotea? Orduan zeure erregistroan bilatu behar duzu, asmatu arte, eta ez da erraza.

ZE PERTSONAIK EMAN DIZKIZU BURUHAUSTE HANDIENAK?

Ba, gaur egun egiten ari naizen paperak kezka handiak sortu dizkit. Gauza asko birplanteatuarazi dizkit. Eta gero, ez derrigorrez luzemetraietako pertsonaiak. Behin laburmetraia bat egiten ari nintzela esan nuen ez nuela gehiago zinerik egingo, baina hortik pare bat egunetara buelta eman nion. Zineak badauka puntu erakargarri bat, baina ez du zerikusirik glamourrarekin. Ez dakit zehazki zer den baina badu zerbait.

ZUZENDARIAREN JARRERA GARRANTZIKOA DA LANA ONDO BURUTU AHAL IZATEKO. ZEINEKIN ARITU ZARA GUSTORAGO?

Nik uste dut suerte handia izan dudala jende interesgarriarekin lan egin dudalako; hala iruditzen zait. Guztietatik ikasten da. Adibidez. Kalparsoro argia da, zuzena eta

JOSEBA OSA
- ITZULPENAK -
 EUSKARA-GAZTELERA-
 KATALANA-INGELES-
 FRANTSESA

Tel / fax: 148065

ekin
 ELEKTRIZITATEA

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
 ISTALAZIO MUSIKALAK
 AKUMULADOREAK
 ALARMAK
 ANTENAK
 PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97
 TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1º - Telf. 14 34 74
 20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)

**SUKALDEKO
 ALTZARIAK**

DORNUTEGI
 ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behe
 Telefonoa: 862051

20750 ZUMAIA
 (Gipuzkoa)



Euskal zineari buruzko azalpen luzea eman zigun Kandidok.

Garrantzitsuena zuzendaria bere produktuarekin zintzoa izatea da, nahiz eta horrek dirua lortzeko arazoak suposatu

zorrotza, eta hori gustatzen zait. Baina Medemekin ere oso gustora egin nuen lan. Hura pixka bat intelektualago, baina oso interesantea ere bai. Eroso zauden tokian agian gutxi ikasten duzu. Berriz, borroka batean bazaude zeure pertsonaiarekin, hori aberatsagoa izango da.

ZURE BEREZKO OGIBIDEA BIKOIZKETA LANA DA. BIKOIZLE ONA IZATEKO BEHARREZKOA AL DA AKTORE IZATEA?

Bikoizketa egiteko interpretatzea beharrezkoa da. Bikoizleak azken finean aktore lana egiten du. Hala ere, ni askoz erosoago sentitzen naiz lan hau egiten, azken finean, ez baitzara

pantailan agertzen. Nik beti esaten dut filme bat egiten ari naizenean, egunen batean kamararen bestaldean egon nahi dudala. Bikoizketan lasaiago sentitzen naiz, eta gozatzera ere iritsi naiz zenbaitetan, baina batez ere gordea zaudelako.

ASKO HITZ EGITEN DA AZKENALDI HONETAN EUSKAL ZINEAZ. BA AL DAGO BENETAN HALAKORIK?

Nik ez dakit euskal zineaz hitz egitean zertaz hitz egiten den. Nik dakidana da hemen zinea egiten dela eta gaur egun hemen badaudela elementu batzuk eta ekipoa zinea egiteko modukoa. Hemen jaiotako zuzendariak eta aktoreak badaude,

eta eta hemen lan egiten dutenak. Ekipoak eta tresnak ere bai. Baina zein da euskal zinearen definizioa. zinea egiteko gai den jendea badago. Euskal zinea egiten duten beste kontu bat da.

Interesgarriena da norbera bere proiektua aurrera ateratzen saiatzea. Eta saio horretan egilea bere proiektuarekin zintzoa bada are eta interesgarriago. Horretarako arriskatu beharra dago. Adibidez Kalparsoro zeharo arriskatu zen bere lehen filmean. Ausarta izan zen, eta agian inkontzientea, baina honelako jendea behar da.

Argi dago produktu hauek garestiak direla eta diru asko behar dela. Baina diruak ez du produktu on bat ziurtatzen. Dena dirua balitz ezingo genuke konpetitu. Ezin dugu amerikarren eredia hartu. Orduan beste bide batzuk bilatu behar dira. Bi mutur daude mundu honetan. Alde batetik produktorearen menpean daudenak eta bestetik amore ematen ez dutenak, pelikula ez egiteko arriskuarekin.

Tarte horretan mugitzen jakin behar da. Zenbat eta zintzoago zure lanarekin, hobeto.■

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2

OPTIKA ZUMAIA
Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057
20750 ZUMAIA

Urrezko txitxareen bila

Gabonak inguratzen ari dira, eta mahai batzutan angularik ez da faltako aurten ere. Ez da broma kilo bategatik 25.000 pezeta ordaindu behar izatea, baina gero eta gutxiago dagoenez izugarrizko lanak ematen ditu angularen arrantzan jarduteak: ordu pila bat sartu behar izaten dira eta askotan errazio baterako bakarrik ateratzeko. Hurrengoan ere, denak urrezko txitxareen atzetik abiatuko dira, ordea.

Eroriko dira, sareetan.

Inor gutxi ibiltzen da orain lehorretik arrantzan. Ia denak motoretan aritzen dira, angula harrapatzeko behar bezela prestatu ondoren. Arrantza honen denboraldia urriarekin batera hasi ohi da eta martxora arte irauten du.

Jendea hor diruagatik dabil, baina garbi dago afizioa ere behar dela

Orain 15 motora inguru dabilta, baina Gabonetarako 30 izango dira Urola ibaian gora eta behera ibiliko direnak. Motora hauek bi estilotara aritzen dira arrantzan. Batzuk **axaletik** bakarrik ibiltzen dira eta beste batzuk axaletik eta hondotik.

Hondotik angula gehiago harrapatzen da, baina lana ere



Gu ohean goxo-goxo gaudenean beste batzuk lanera joaten dira.

gogorragoa da; baia handiagoak direnez askoz gehiago kostatzen da hauek ateratzea. Horregatik orain batzuek makina hidraulikoak erabiltzen dituzte baiak jasotzeko.

Urtean zehar itsasoan arrai txikitari ibiltzen diren motora hauek prestatzea kosta egiten da: baiak egin behar dira, hauei sareak jarri, baien euskarriak jarri motoran, ... Baina badirudi gero probetxua ateratzen diotela. Motorrak zenbat eta potentzia gehiago izan, baia handiagoak mugitzeko gaitasuna izango du.

Nondik datoz angularak?


Urte askoan lohi artean sortzen zirela pentsatu izan da, baina azken urteotako ikerketa batzuek frogatu dutenez Sargazoen itsasoan jaiotzen

dira, Bermuda Irlen hego-ekialdean. Ozeano Atlantikoa gurutzatzen dute, 2-3 urtean 6.000 kilometroko bidaia eginez. Gero gure ibaietan gora abiatzen dira, eta gure arrantzaleen baimenarekin, batzuk aingira bihurtzen dira.

Gauetz arrantzan

Itsasbehera edo bajamarra izan eta 2 ordu ingurura hasten dira arrantzan: galtza-zirak eta erropa egokia jantzi, baiak prestatu, fokoa piztu eta aurrera! Hasieran moila inguruan hasten dira batzuk eta gero leku ezberdinetan probatzen dute: Paolaldean, Beduan, Konde baserriaren inguruan, ... Oikiako Sutz baserri pareko zubiraino ere igotzen dira marea biziak direnean.

T
B
E
R
N
A



Aradi
Anzua
86 21 89

*Jesuskoa
Fartetxea*



Azua 86 17 39 • Okiia Zumaiá



KABI
TABERNA - ZUMAIÁ
Tfnoa: 143379

Ibaian gora eta behera ibiltzen dira, eta ahal den hondo txikieneko lekutan ibiltzen saiatzen dira, ur mehetan ibiltzen den angula hori errezago harrapatzeko. Kanaletan sartzen dira, eta batzuetan hondoa jo eta zai egon behar izaten dute, marea pixka bat igo arte.

Orain batzuek makina hidraulikoak erabiltzen dituzte baiak jasotzeko

Bi ordu pasatzerako jakiten dute nolako eguna izango den. Zeozer harrapatzen ari badira, segi daiteke beste hainbestean; gutxi badago (edo ezer ez) trasteak jaso eta etxera! Hartutakoa biberotara bota ohi dute, gero dena batera saldu ahal izateko.

Prezio onena Gabonetan

Orain artean ez dute gauza haundirik hartu, baina garairik onena hurreratzen ari denez oraindik ez dute itxaropenik galdu. Prezioak ere Gabonetan jotzen du goia, eta Sansebastianak arte hor mantentzen da; ondoren nabarmen egiten du behera. Horregatik, ahaleginik haundienak orain egiten saiatzen dira, otsailean asko harrapatuta ere ez baitute diru askorik lortuko.

Urteak eta urteak izaten dira. Aurrekoan, adibidez, nahiko ondo joan zitzaizkien kontuak. Baina duela 3 urte muestrarako ere ez zuten alerik



Motora behar bezela prestatu behar izaten da.

atera ia. Jendea hor diruagatik dabil, baina garbi dago afizioa ere behar dela ordu horietan eta eguraldi eta temperatura horiekin lan honetan aritzeko.

Kutsadura eta barra

Ibaiaren kutsadurak ere badu bere eragina, noski; baina zaila izaten da hau neurtzen angula ere ez delako urtero neurri berean etortzen. Hala ere, lehengo urtekoa aipagarria izan

zen. Euri asko egin zuen batean ibaia kargarekin zetorrela aprobetxatuz, Aizarnazabalgo papelera batek ikaragarriko kartoi-isurketa egin zuen Urolara eta hondotik ibiltzen ziren motorek arazo haundiak izan zituzten. Likarekin angulak biberotan berehala itotzen ziren. Baiak ere izorratu zitzaizkien eta egoera hau udaletxean salatu zuten. Baina ez zen ezer lortu eta kontua hor geratu zen.

Aurtengoan badago beste nobedade bat: barra. Ezin da jakin orain angula gutxiago edo gehiago sartuko den, baina beharbada ez da lehengo lekuetan harrapatuko.

Kainarekin arrantzan dabilzanekin ere istilu larriak izan zituzten garai batean, baina badirudi gaur egun elkar errespetatuz nahiko ondo konpontzen direla. Motorazaleen artean ere ez dago arazo aipagarririk, ez dago laguntasun izugarririk, baina hainbeste lagun leku berean ibilita istilurik ez izatea ez da gutxi izaten.



Momentu hauetan 15 motora inguru dabilta arrantzan.

ESSAUS
Surf

Torre Luzea, 2
Tel. 83 50 24
20800 ZARAUTZ

Erribera, 2/g
Tel. 86 23 69
20750 ZUMAIA

ARRAIN ETA MARISKOAK

MARES BARAZKIAK
ETA AURREZ
PRESTATUTAKO JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

LEIZE

Juan Belmonte 6
ZUMAIA

Tnoa: 860415

BENITO ETXABE:

"Franko hil zen gauean 30 kilo angula hartu nituen"

14 urtekin hasi zen eta hiru urte badira anguletara joan ez dela, baina garai batean gertatutakoak gogoan ditu. Beheko Gorosti Haundi baserrian harrapatu degu 67 urteko gizon hau, tomate estaken artean alanbrea biltzen.

Asko aldatu al da arrantza egiteko modua?

Orain bazterretik txiripaz besterik ez da harrapatzen, eta ia inor ez da ibiltzen. Orain denak motoran ibiltzen dira.

Lehen txanalatan ibiltzen zinatean, ordea.

Bai, bizitza guziaz txanalatik ibili ginen. Motorakin semea hasi zela 8-10 urte badira. Txanala ibaian gurutzatu eta ondo lotu behar izaten zen, korrienteak ez mugitzeko; baia hondoraino bota eta jaso karrete batekin egiten genuen. Orain sistema hau motoretan ibiltzen dute, baina orain botoi bat ematea nahikoa izaten da baiak jasotzeko. Batzuetan basa eta zikina, ta txarrikeriak jaso ezinik ibiltzen ginen.

Garai batean hogeitaka txanal ibiltzen zen fondoa botata



Oraindik ere sasoi ederrean dago Benito.

Zenbat kilotakoa izan da egin dezun arrantzarik haundiena?

Franko hil zen gauean izan zen, 30 kilotik gora hartu genituen. Aurreko ilberrian ere 2-3 kilo hartzen ibili ginen. Uhalak ikaragarriak ekarri zituen; bezperan ez genuen batere hartu, baina gau hartan baia bete-bete hartzen genuen. Semeak ere asko hartu zuen. 20 kilo eta 16 kiloko arrantzak ere izan ditut, baina sekula ez gau hartakoa bezelakorik.

Jende asko ibiltzen al zen lehen?

Bai, bai. Oraintxe gutxi dabil bazterzaleak ezkutatu dira-eta. Lehen Beduan hasi eta ez zen non jartzeko tokirik egoten. Jendea han etortzen zen Zarautz, Getaria, Arruatik ta nondikan ez. Hogeitik gora txanal ibiltzen ziren fondoa botata, ta bazterretik ere pila.

Garai hartan zein zen arrantzale onena?

Zaila da esatea. Orduan, aplikatzen zenak hartzen zuen gehiena. Hainbeste txanal zegoen tokian tarrea gorde behar izaten zen; jeneralean distantzia errespetatzen zuen jendeak eta ez zen istilu haundirik izaten.

Dirua edo afizioagatik ibiltzen da jendea angula arrantzan?

Afizioagatik gehiago. Majina bat aldiz, bai, batere hartu ez eta hurrengo egunean ere joan egin behar da, joan gabe ez da harrapatzen eta.

Orain ere angularik jaten al dezu?

Aldian behin, probatzeko lain.

Eta gula edo delako hori probatu al dezu?

Bai, probatu nuen. Ez da txarra, baina diferentea da. ■

SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenan
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAIA



**Igor
Martinez:**

Ez daukat erantzuteko denborarik. Presaka nabil.



**Nerea
Bernal:**

Nik ez det erlojurik ibiltzen ze pilak gastatu ziran eta dendara ez juteagatik! Orain igual zait.



**Luis Mari
Manzidor:**

Erlojua beti ibiltzen deu eta puntuala naiz. Ez naiz bizi, ordea, erlojuaren menpe. Baina egia esan denbora kontrolatu behar izaten dut. Bueno, erjuaren menpe nago bai!!!



**Silvestre
Aizpurua:**

Zu ere bai, eta ni ere bai, Danok bizi gera erlojuaren menpe. Danok!

Erlojuaren menpe bizi al zera?



**Ainara Azkue
eta
Ana Oiarzabal:**

Ez dezue ikusten korrika gabiltzala, edo zer?



**Itziar
Beristain:**

Trenera juteko, eskolara juteko, danerako bizi naiz erlojuaren menpe. Eskola eta entrenamenduaz aparte hala ere lasaiago ibiltzen naiz.



**Imanol
Zubia:**

Nik erlojuarekin lo eta guzti egiten det, duxatu ere bai. Lanera eta alde guztitara erlojuaren arabera juten naiz eta horrek estresatu egiten nau.



**Arritokieta
Irigoien:**

Ez, bueno, honbre kontrolatuta daukat, eh? Puntuala izatia gustatzen zait, baina ez naiz bere menpe bizi. Ah! Hori bai! Ezta pentatu ere ez det egiten erlojurik gabe ateratzia kalera; baina ohituragatik da.

GANBARA


TABERNA
Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57


MENDI - ONDO
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
 - * Banakoak
 - * Kolektiboak
 - * Satellite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.

Axular 14
20750 ZUMAIA

Telefonoak:
860074 - 861569





Muxu txuriak

Oraindik, kriston inpresioa egiten dit, sexualitate inguruan daukagun ezjakintasun, desinformazio eta kaka nahasteaz konturatzen naizenean. Azkenengo Baleiken arlo honetako artikulua irakurri ondoren ere, sentimendu eta sentsazio asko azaleratu zitzaizkidan eta nere erreflexioak azaldu nahi nituzke.

KATTALIN

Egia da, sexualitatea oraindik tabu haundia dela gure artean, nahiz eta denak aurreratuago gaudela iruditu, horren adibide bat *Muxubeltza* izan zen; gauza progre eta aurrerakoia egin zutelakoan ez ziren konturatu sexuaren aurpegiak salduena eta atzerakoiena kaleratu zutela.

Normalean aldizkari horretan, beste askotan bezela, harreman sexuala zakilean gauzatzen da, bera da protagonista nagusia eta bakarra, bertako hazia ateratzen denean, istorioa bukatu da. **Ez ote dira konturatu gorputzeko atal gehiagorekin ere disfrutatu daitekeela?**

Pertsonaia nagusia eta boteretsua gizonezkoa da (zakila) eta suposatzen dute emakume guztiak (zuloak azken finean) desiatzen daudela beraiekin erlazionatzeko, bukaeran gainera plazerrez urtuta



geratzen dira izugarrizko marruak egin ondoren. **Jakingo ote dute, azkenengo estadistiken arabera emakumeen % 70ak ez duela orgasmorik lortzen sartze-praktikarekin?**

Emakumea azaltzen denean, normalean ninfomana da, edo oso lotsatia bada, zakila "probatzen" duenean ninfomana bihurtzen dena. **Parregarria ezta?**

Hilerokoa. Neska hilerokoa etortzen zaionean bihurtzen da emakume, emakume eder eta birjin bat, balore hau oso garrantzitsua da zenbat balio dugun kontuan izateko. **Dexenteko pasada, oraindik, himen pusketa hau super baloratua izatea. Propietate kontua ote?**

Eta noski, emakumea minigonarekin badago, edo titi handiak baditu, gizonaren zakila, barkatu burua aktibatu egiten da eta bortxatzeko eskubide guztiak ditu. Neskak erresistentzia jartzen du, baina azken finean biziki desio duelako da. **Gaur egun, juezak ere oso daude honekin; horrela ote da benetan?**

Balore hauek eta antzekoak agertzen dira *Muxubeltza* eta antzeko errebistetan, bai eta eguneroko bizitzan. Moral kutre eta hipokrita ez dute hausten; are gutxiago, ez dute sexualitatea gauza normal bat bezela hartzen. Beraz ongi ikusten dut eredu gisa agertzea, baina zer ez den egin behar esateko.

Agian egunen batean, pertsona sexodunak garelako konturatuko gera, erlazioak pertsonen artean eman ditzakegula, kontuan hartu gabe zein generotakoa den, fantasia sexualak denok ditugula, baina ez dela txarra ezta pekatu ere, eta agian praktikatu ere egin ditzakegula. Agian egunen batean gai honen inguruan formazioa izango dugu informazioarekin batera, eta agian egun batean Zumaiko gazteak, errebista erotikoko bat kaleratuko dute *Muxubeltza*ren edukia txuritik beltzera aldatua duena. Eta agian izenburua *Muxutxuria* jarriko diote.

Hori gertatzen den egunean, oso ziur nago, beste gizarte mota bat izango dugula.

BESARKADA BAT



ZUMAI A



AUTO -ESKOLA

- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea
☎ 861018

20750 ZUMAI A



**inportaturiko erropa
eta artisautza**

Basadi 3 Zumaia

URA! URA!

Errementaldegi batean lanean ari ziren. Momentu hartan, ordea, berriketan ari ziren. Kontu-kontari zebiltzala enkargatua etortzen ikusi zuten eta batek esan zuen:

- Ura! Ura!

Langile batek kurrikekin burdina gorigorian hartu eta uretara bota zuen. Beste batek eskuekin heldu zion, zerbait egiten zuela emateko. Gauza ederrari heldu zion gaixoak!

HEMEN JOTZEKO

Txindurri esaten ziotena eta beste lagun bat ingudean burdina jotzen ari ziren. Txindurrik porraz jotzen zuen eta besteak atzamarrez markatzen zion ingudean, esanez:

- Hemen! Hemen!

Halako batean, tauki eta tauka zebiltzala, Txindurrik atzamarrean jo zuen laguna.

- Aiiii!! Zertan ari haiz?

- Heuk esaten huan, ba, hemen

jotzeko.

Kontu-kontari



Motxian hi!

Nor: Unai
Agirrezabalaga
Nola: "Txonpe"

- Zer nahiago dezu, taberna edo diskoteka?
- Diskoteka.
- Dantzan egin edo hitz egin eta edan?
- Hitz egitea, eta dantza egitea. Biak.
- Hobby bat?
- Ez daukat hobbyrik.
- 300 milioi tokatuz gero zer??
- Viva la vida!
- Esan lezaguzu ligatzeko teknika infaliblea.
- Aurrena hitz egin, gero pertsona ezagutu eta tokatzen bada ondo, eta bestela ... ere bai.
- Alkate izanez gero, zein da egingo zenukeen lehen gauza?
- Gazteei biltzeko toki bat emango nieke: hitz egiteko, egoteko, kartetan jolasteko.
- Kirol porturako yate bat erosiko al dezu?
- Dirua edukiz gero pentsatuko nuke.
- Aukeran zer lan egingo zenuke lan?
- Mensajero lanetan nabil eta gustora nago lan honekin.
- Zer iruditzen zaizu Olano Montekarlora joatea bizitzea?
- Je, je, je. Haziendari ez ordaintzeagatik izan bada, ondo zio.
- Zure bizitzan zehar egin dezun astakeria edo aldrebeskeri handiana?
- Behin ez nintzen joan eskolara.
- Bizio bat?
- Bizitza gozatzea.
- Egin dizuten putadarik haundiena?
- Soldaduzkan leiho batetik zintzilik jarri ninduten, 2.pixu batetik..



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIAK
· 24 orduetan
· Zeure etxean
· Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR FOTOKOPIAK



- Enkuadernaketak
- Plastifikatseak
- Fax publikoa
- Bulegoko materiala

Basadi 1-4, behea - Tf: 145120

Legeak intsumisioaren kontra: kode penal berria

Iragan azaroaren 8an Espainiako senatuan "Demokraziaren kode penal" berria onartu zuten, han zeuden alderdien ordezkarien botoei esker, PP abstenitu bazen ere. Orokorrean aurrerapen nabarmenak dituen kode honek (kontuan hartuta aurrekoa XIX. mendekoa zela) ez da horren eskuzabala intsumisioaren arazoa ikutzen duenean.

GU EZ GOAZ

Bi ataletan banatzen da intsumisioari dagokiona, bat soldaduzka egin nahi ez dutenei buruzkoa eta bestea ordezeko zerbitzu soziala egin nahi ez dutenena. Lehena XXII. atalean sailkatu dute *"De los delitos de traición y contra la paz o la independencia del estado y los relativos a la defensa nacional"* izenburupean (harrigarria benetan!), bertan soldaduzkari uko egiteagatik merezitako zigorra azaltzen da: 6 hilabete eta 2 urte bitarteko gartzela eta 10-14 urte bitarteko inhabilitazio osoa bake garaian.

Gerra garaian berriz, 2 eta 4 urtera igotzen da gartzela zigorra eta inhabilitazioa berdín geratuko litzateke. Ondo zehazten da zertan datzan aitaturako inhabilitazioa, Estatuko eta elkarte autonomotako erakunde edo enpresa publikotan lana egin ezin izatea eta

erakundetako beka edo diru laguntzarik ez jasotzea.

**Kode berriak
intsumisioari zigor
administratibo eta
ekonomikoak
inposatzen dizkio,
insumisoentzat
heriotza zibila
ekarriz**

Beste lege-haustea, zerbitzu sozialari intsumiso izatea, XX. atalean azaltzen da, *"Delitos contra la constitución"*-en barruan sailkatuta. Hauentzat proposaturako zigorra, 8 eta 12 urte bitarteko inhabilitazioa da, 12 eta 24 hilabeteko isunarekin batera (76.000 pezetatik 36 milioira).



Ikusten duzue kode penalak dakarrena, alde batetik, intsumisioa gartzela zigorretatik ia kanpo uztea, baina beste motatako zigorrak inposatzea, zenbait kasutan gartzelakoak baino okerragoak, adibidez, epe luzean lana egiteko aukera dexente murriztea (lan eskeintza haundia egiten baitituzte erakunde publikoek) eta zigor ekonomikoak, beka edo antzeko diru laguntzak ukatzearekin. Beraz, oso urruti gaude benetako zigorgabetzetik, ministro izendatu aurretik Bellochek askotan eskatu zuen arren.

Hau guztia ikusita, esaldi batekin laburtu dute talde antimilitaristek hemendik aurrera egoera berriak intsumisoentzat suposatuko duena: "Heriotza zibila". Ah! eta intsumisioaren alde asko hitz egiten duten alderdien onespenearekin: EAJ eta IU. ■



**BASUSTA
ERRETEGIA**
M^a Dolores Aizpurua
Pantxita Etxezarreta, 25
Telefona: 862073
20750 ZUMAIA

ZALLA
Taberna - Erretegia
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK
OILASKO ERREAK
San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

Galdona
burdindegia
Mendaro mariñela, 1
Juan Belmonte, 15
Tlf: 86 11 17 / 14 33 46
Fax: 861330
20750
ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Gabonetan ere "antimilitarizatzen"



Dagoeneko jakingo dezuenez Gu ez goaz talde antimilitaristak gabonetako postal lehiaketa antolatu du. Antimilitarista mezua egun horietan ere bazter guztietara zabal dadin, gehienbat gartzelean dauden intsumituei, eta zergatik ez, baita koarteletan dauden hainbat gazteri ere.

Bestalde, iazko gabonetako erregeen egunean tiro eta armen hots gutxiago entzun genuela iruditu zaigu. Baleiken idatzitako artikuloaren eraginez? Jendearen kontzientziazioa? Gure ilusioa besterik ez? Ez dakigu. Hala ere, joan zen urtarrileko Baleiken gerrako jostailuei buruz idatzi

genuen artikulu berrirakurtzea gomendatzen dizuegu. Ea ilusio hori errealitatea bihurtzen den! ■

Arruako intsumiso bat epaituko dute

Abenduaren 5ean Roberto Gutierrez arruar intsumisoa epaituko dute Donostian. Fiskalak 2 urte 4 hilabete eta egun bateko espetxe zigorra eskatzen du, hala ere, gu han egongo gera gure elkartasuna adierazteko. Arrua, Zumaia eta Zestoa artean autobusak antolatu ditugu bertara hurreratzeko. Beraz ez dago aitzakirik!



Ordezko Zerbitzuari Buruz

Iñaki Etxaniz

Orain dela bi edo hiru aste, ordeko zerbitzua egiten ari den mutil batekin hizketalditxo bat izan nuen, eta aditu nituen txorakeriek bultzatu naute hau idaztera.

Erderez Prestación Social Sustitutoria deritzana, hori ezik edozer gauza izan daiteke, putada handi bat gizartearentzat. Nolatan esan liteke ordeko zerbitzua gizarteari egiten zaion zerbitzu bat dela juxtu aurkakoa denean?

Normalean zerbitzu hau egiten dutenak Gurutze Gorrira bidaltzen dituzte, agureak zaintzen dituzte edo antzeko lanak bete. Hau da, jende profesionalak egin beharreko lanak egiten ari dira, intentzio onez baina profesionaltasun faltaz. Hau kontutan edukiz eta gaur egun dagoen langabezia ikusiz, zer ari dira objetoreak egiten? Nire ustez lanpostuak kentzen besterik ez. Egiten ari diren lanetan ez dira ezinbestekoak, adibidez osasunarekin zerikusia duten gaietan jende profesionala behar da, eta asko dago. Horregatik objetoreei, zerbitzu soziala egin aurretik gizarteari egingo dioten kaltean pentsatzea eskatzen diet. Denontzat askoz hobe izango da.

ERROTA
ERROTA
OPIL - OKINDEGIA



Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIA



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

ARGIA



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

Larraul, gazteen paradisu berria

Aurrean daukagun zubi luze honen aurrean, jende askok egiten ditu herritik kanpo egun batzuk pasatzeko planak. Gazte Batzordeak ere aukera eder bat eskaintzea pentsatu du, betiko egunerokotasuna alde batera utzi eta Larrauleko baserrian mendiak eskaintzen dituen plazerrez gozatzeko.

Izena eman duten 23 pertsonak lau egun pasako dituzte, 6tik 9ra, eta ziur ez dutela aspertzeko denborarik izango, antolatzaileek egitarau eder bat osatu baitute.

Esan behar da aurreko asteburuan (2a eta 3an) Gazte Batzordeko talde bat baserriraino hurbilduko dela zenbait konponketa eta txukuntze lanak egiteko.

Egitaraua

Asteazkena 6

Zumaiatik bazkalondoan izango da irteera. Larrauleko baserrian trsteak utzi ondoren, arratsaldean zehar ekintza ezberdinak egingo dira: Ping-pong txapelketa, pilota,... eta pintatu nahi den muralerako ideiak pentsatzeko dira.

Lehen egun honetan afaria etxetik ekarritako bokatekin egingo da. Afalostean tertulia izango da eta ondoren beldurrezko istorioen kontaketa hasiko da.



Osteguna 7

Gosaldu ondoren, mendi irteera bat egingo da, Ernio mendira hain zuzen ere. Mendira joateko gogorik ez dutenek muralari eta beste zenbait konponketa egiteari ekingo diote. Bazkaldu eta gero, musa, partxisa, xakea,... eta arratsaldean sexualitateari buruzko hitzaldia Luis Elberdinen (Askabide) eskutik. Afaldu ondoren, Eneko Dorronsorok kantaldia eskeiniko du kitarrarekin.

Ostirala 8

Oraingo honetan mendi irteera Gurutzmendira izango da; besteek muralarekin jarraituko dute. Bazkaldu ondoren: Ruth eta Lierniren jokuak, drogen inguruko hizketaldia, futbola eta denbora libre,.... Afalostean, diapo emanaldia: "Atlas" eta playback saioa.

Larunbata 9

Bazkaldu aurretik konponketak eta garbiketak egingo dira, murala amaitzeaz gain. Eta bazkaldu ondoren, etxera!



Ez da aspertzeko denborarik izango Larraulgo baserrian.

KALARI TABERNA JATE TXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA



JUSTA
TABERNA
EGUNEROKO
BAZKARIAK

Erribera kalea 20

TXORITXIKI, tanboriltero haundia

Azaroaren 27an 35 urte bete ziren txistulari edo tanboriltero haundi hau hil zenetik.

Horregatik 19an ondo merezi zuen omenaldia jaso zuen, Aita Mari zinean egin zen txistu kontzertuarekin. Gazteoi behintzat herriko pertsonaia hau ezezagun samarra egiten zaigunez lerro batzutan Txoritxiki nor izan zen azaltzea egokia dela iruditu zaigu.

Gillermo Aizpurua Amas Txoritxiki 1891ean jaio zen eta 79 urte zituela hil zen, ia bere bizitza guztia Zumaiako kaleak alaitzen pasa ondoren.

Leandro Zabala izan zuen irakasle eta instrumentu ugari jotzen zituen bandan: flautina, saxofoia, dunbala eta silbotea. Eta txistua ere bai, noski. Igande goiz guztietan zortziko zoragarri batzuk joaz ibiltzen zen batetik bestera, ohitura zaharrei jarraituz.

Zergatik deitzen zioten Txoritxiki? Batzuek diotenez txistuari ateratzen zizkion doinu ederregatik zen. Baina beste teoria batek dionenez txorizale amorratua zen, eta erreklamora joaten omen zen txori txikiak harrapatzera. Baina txoririk ez omen zuen eramaten; tarin, txoka eta txarraskalen kantuak berak imitatuz txori txikiak errez inguratzen omen zitzaizkion.



Egino, Aizpurua, Txoritxiki eta Ixidro Urbieta, Vallellano Paseoaren inaugurazioan.

Zenbait gazteri txistua nola jotzen zen erakusten ere aritu zen eta Zumaiako kaleetaz gain, Oikia eta San Migeleko auzoak ere alaitzen zituen bere doinuen bidez.

San Pedrotan Alkatearen etxetik hasi eta kontzejal guztien etxetatik pasatzen omen zen beren etxeen aurrean doinu ezberdinak joaz. San Telmotan, berriz, kopraiko kide guztien etxeetatik pasatzen zen.

Txoritxikirik gabeko festarik ez zegoen: pasakalle, prozesio, kontzertu eta dantzaldi guztietan han izaten zen, beti lanerako prest.

Bestelako istorio politak ere baditu pertsonaia maitagarri honek. Adibidez Arritokieta izeneko untzi bat ibaira bota behar zutenean masta nagusira igo zen Txoritxiki eta txistua jotzen

ari zela irristatu omen zen untzia uretaraino.


Behin bandako zuzendariak kobratzeko deitu zionean, honela erantzun omen zion. "¡Voy volando!" Beraz, badirudi ezizena gustokoa zuela.

Astilerotan lana egiteaz gain barbero ere ikasi omen zuen, eta Paolaldea betetzen ere lan egin omen zuen. Ordukoa da kopla hau:

Tenemos en el chupón
tres chicos muy gandereros
Karakas y Larramendi
y Txoritxiki el tamborilero

Alproja fama zuen, baina izatez umila eta apala zela diote askok. Zumaiak asko zor dio gizon honi, eta egin zaion omenaldia baino zerbait gehiago mereziko zuen, beharbada. ■

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Belardenda
Paki
OSASUN NATURALA

erribera 2
Tlf: 143156

ONCE

JOXE
MANUEL

Gabon
zoriontsuak
igaro itzazuela

Zumaiarrak Behobiatik Donostiara


60 inguru zumaiar izan ziren lasterketa honetan parte hartzen, gehienak autobusean joanak eta beste batzuk beren kabuz. Hauxe dira guk bildu degun korrikalari zumaiarren zerrenda. Zorionak denei!

- 1- (48) Mariano Sanchez1:08:22
- 2-(80) Jesus Mari Alvaro1:10:03
- 3- (291) Juan Manuel Lopez.... 1:16:15
- 4- (415) Mikel Yeregi 1:18:25
- 5- (536) Felipe Agirre 1:19:58
- 6- (581) Jose Mari Lopetegi ... 1:20:23
- 7- (624) Asier Eizagirre 1:20:56
- 8- (747) Jesus M. Aginagalde ..1:22:04
- 9- (814) Juan I. Alkorta1:22:44
- 10- (817) Peio Santamaria1:22:45
- 11- (842) Julian Igual1:22:57
- 12- (886) Jaime Osa1:23:20
- 13- (973) Joseba Iribar1:24:08
- 14- (1123) Xabier Ureta1:25:13
- 15- (1438) Xabier Altzibar1:27:03
- 16- (1439) Iñigo Perez Nieves..1:27:03
- 17- (1488) Xabier Elizalde1:27:21
- 18- (1503) Jon Sasiain1:27:25
- 19- (1517) Mikel Sasiain1:27:30
- 20- (1618) Martxelo Santamaria.1:28:02



Jon Alvarez, 5.000.posttuan. Hi haiz korrikalari borobila!

- 21- (1715) Karlos Del Pilar1:28:35
- 22- (1841) Manu Olaizola1:29:22
- 23- (1959) Julian Florez1:30:05
- 24- (2089) Xabier Udabe1:30:50
- 25- (2176) Xabier Azkue1:31:07
- 26- (2256) Xabier Laskibar1:31:36
- 27- (2539) Antonio Fernandez...1:32:54
- 28- (2540) Jon Albizu1:32:54
- 29- (3267) Imanol Azkue1:36:12
- 30- (3580) Jose A. Amilibia1:37:35
- 31- (3586) Ramon Otaño1:37:36
- 32- (3629) Jose I. Landa1:37:47
- 33- (3649) Carlos Moreno1:37:52
- 34- (3916) Marcos Gonzalez1:39:05
- 35- (3929) Javier Udabe1:39:08
- 36- (4347) Imanol Arratibel1:40:46
- 37- (4564) Iñaki Ibarguren1:41:36
- 38- (4773) Migel Aramendi1:42:37
- 39- (5000) Jon Alvarez1:43:46
- 40- (5001) Bernard Caporosso ..1:43:46
- 41- (5644) Agustin Aizpurua ...1:46:44
- 42- (5712) Andres Esnal1:47:03
- 43- (5719) Rafa Tamayo1:47:04
- 44- (5774) Luis S. Galarraga1:47:18
- 45- (6781) Jose M. Manterola ..1:53:08
- 46- (6866) Imanol Cortés1:53:40
- 47- (7242) Ricardo Azcue1:56:21
- 48- (7277) Ainhoa Azkarate1:56:38
- 49- (7280) Ricardo Martin1:56:39
- 50- (7628) Jon Iraola2:00:32
- 51- (8196) Ines Aseginolaza2:18:42
- 52- (8198) Ernesto Gijalba2:18:50



Jesus Mari Alvaro, 2. zumaiarra.



Txilbor taldea kanporatu dute

Txilbor taldea txapelketatik kanporatzea erabaki dute antolatzaileek, Leizeren aurka jokatu behar zuten partiduan ez zirelako behar adina jokalaririk bildu.

Bestalde, Leize Taberna da orain artean indartsuen agertu dena.

Azken emaitzak

- Ipurbeltz 3 - Aginagalde 7
- Inpernupe 2 - Buitraker 3
- Autos Zumaia 0 - Urberu 3
- Mendi-Ondo 4 - Xemetaxio 1
- Kabi Taberna 3 - Zumea Taberna 4
- Autos Zumaia 0 - Leize Taberna 10
- Ipurbeltz 1 - Buitraker 1
- Mendi-Ondo 4 - Hil ta Pakia 7
- Aginagalde 2 - Zumea Taberna 2
- Urberu 2 - Xemetaxio 7
- Kabi Taberna 1 - Everin 6

Hurrengo partiduak

Abenduaren 6an (10'00)

- Inpernupe - Kabi taberna
- Aginagalde - Everin

Abenduaren 8an

- Autos Zumaia - Xemetaxio
- Urberu - Hil ta Pakia

(11'30)

- Ipurbeltz - Zumea taberna

Abenduaren 12an (10'15)

- Everin - Zumea Taberna
- Kabi Taberna - Buitraker

(11'45)

- Inpernupe - Aginagalde
- Leize Taberna - Xemetaxio

goopy
HAUR JANTZIAK
Amaia plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA

agustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurun Zuhaitz-bidea, 1
20750 ZUMAIA Telefona: 862430

CORO PRIETO
Esteticista

Bonifazio Etxegarai plazatxoan z/g
Tfnoa: 861322

Oier Egaña eta Beristaindarrak gogor hasi dira



Eneko eta Igor Beristain, Oier Egañarekin batera.

Indartsu daudela erakutsiaz ederki hasi dute denboraldia herriko txirindulari hauek. Oierrek Usurbilgo lasterketa irabazi zuen eta Igor 2. postuan geratu zen Duranan, Igartuaren atzetik. Orain beste proba batzuk korrituko dituzte eta 17an Gipuzkoako Txapelketa izango dute Andoainen. Euskadikoa ere urte amaieran jokatu dute.

Orain arte errepidean aritu dira prestatzen, eta noizean behin Elorrian duten zirkuitora joaten dira entrenatzera. Ziklos Beristain taldean daude eta Zumaiako Txirindulari Elkartearen babesarekin egiten dute aurrera. Errepidean primeran ibili diren bi kadete ere hasi dira aurten ziklo-krosean: Gaizka Gonzalez eta Iker Ortiz.

Aurten kategoria berri bat jarri dute, 23 urtetik beherakoena. Horrela txirindulari zumaiar hauek lasterketa gehiagotan parte hartzeko aukera daukate.

Denboraldia motza denez, aprobe txatu egin behar dela aipatu digute, horregatik ez zaie komeni lotan geratzea. Igor eta Oier Italian ere izan dira: Munduko Kopako lasterketa batean. Hemen gazteen artean konpetentzia haundia omen dago, eta orain duten helburua txapelketetan paper ona egitea, horrela Mundialera joateko aukera gehiago izango baitute.

Animo mutilak! Eta ea hurrengo hilabeteetan aldizkari honetan zuen berri ematen jarraitzeko aukera ematen diguzuen. ■

Enbil eta Alberdi, Espainiako txapelkunak!



Azaroan Europako txapelketa irabazi ondoren, oraingoan estatuko txapela jaztea lortu dute puntista bikain hauek. Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan jokatu zuten finala, Andoaingo Gazteleku taldeko Oiarbide eta Baronen aurka. Errez nagusitu ziren zumaiarrak, 35-14ko emaitzaz hain zuzen ere. Mundialekoak ihes egin zizuen arren, mundialak zerate mutilak!

Gabonetako txapelketak

Urtero bezela, polikiroldegian Gabonetako **Futbito** eta **Saskibalo**i txapelketak antolatuta dira. Abenduaren 16an hasiko dira seguruena eta Errege Eguneko buelta horretan izango dute amaiera. Izena lehenbailehen eman behar da.

Parai
Informática

Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA

xirula



ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g
Tel. 861705


20750 ZUMAIA

Abenduak 14
Gaueko 10'15etan

Exotica (1994)

Zuzendaria: Atom Egoyan
Aktoreak: Bruce Greenwood, Mia Keshner.

Exotica, club, teatro eta animalia denda batean gertatzen da. Bertan azaltzen diren, edo lan egiten duten pertsonaiek ematen diote exotikotasun hori. Bakardade eta amodio kontu bat dugu honako hau. Exoticaren istorioa striptease bat bezala eginga dago, pixkanaka emozioz beteriko kontu bat azalduz. *Exotica*, Atom Egoyan zuzendari kanadiarraren azken lana dugu, eta dudarik gabe onena eta ederrena. 94ko Canneseko zinemaldian saritua izan zen.



ZINE
FORUM
SAIOAK




Abenduak 28
Gaueko 10'15etan

Tumba Abierta (1994)

Zuzendaria: Danny Boyle
Aktoreak: Kerry Fox, Christopher Ecclestone, Ewan McGregor.

Hiru gazte pisulagun baten bila dabilta. Ez dute onartzen ez "piratu", ez "enpolloirik". Azkenean egokia bilatzen dute, baina etxeratu ondoren hil egiten da, txura denez sobredosi baten ondoren. Baina honek ez du garrantzirik, ohe azpian diruz beteriko maleta bat aurkitzen baitute. Zer egin? Hor dago kokka. Poliziari eman, beraientzako gorde... Britainiar komedia beltza eta frexkoa.



IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen dezue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat. Dasta eta goza itzazu ahal dezun neurrian

Euskaraz

Zeru horiek
Kea behelainopean bezala
Itzalen itzal
Sarean leiho
Consummatum est
Ez duk erraza, konpai!
Zer gerta ere
Poemak
Kutsidazu bidea, Ixabel
Denok sukaldari
Emakume demonioa
Sakoneta

Bernardo Atxaga
Harkaitz Cano
Juan Garzia
Juan Kruz Igerabide
Joan Mari Irigoien
Koldo Izagirre
Karlos Linazasoro
Vladimir Maiakovskii
Joxean Sagastizabal
Pedro Subijana
Jim Thompson
Juan Luis Zabala

Gaztelera

La mirada del otro
Lafuente de la vida
Norte
Donde van a morir los elefantes
Madame Bovary
El palacio de los sueños
La boda de Chon Recalde
La novela de Pepe Ansúrez
Panfleto desde el planeta de los simios
La rata
La isla del viento
Planeta champú



Pedro G. Delgado
Lourdes Ortiz
Seamus Heaney
José Donoso
Gustave Flaubert
Ismail Kadaré
Gonzalo T. Ballester
G. Torrente Ballester
V. Montalbán
Andrzej Zaniewski
Juan Luis Cebrián
Douglas Coupland



AIZPURUA

LIBURUTEGIA

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefona: 861569
20750 ZUMAIA

OPARIK



ERTZ INFORMATIKA

EGUBERRITAKO PROMOZIOAK:

Mendaro Mariñela 3

TEL: 14-33-95

Zure INFORMATIKAKo Denda

- ORDENAGAILU MULTIMEDIAK
- KOLOREZKO INPRIMAGAILUAK
- CD ROM

15

Arratsaldeko 7,30etan Forondan, DIAPOSITIBA EMANALDIA, Eusebio Martinen eskutik "Ibilaldia Frantziako kostalde atlantikotik zehar".



16

Ludotekan, Gabonetako ESKULAN TAILERRAK, goizez 10etatik 1etara eta arratsaldez 3etatik 6etara. 3.mailatik gorako gaztetxoentzat (8 urtetik 14ra). Matrikula: 200 pezta. Informazioa: Ludotekan (143264).

22tik
29ra

Oxford aretoan, Zumaiaiko Argazki Elkarteak moldatuta: Zumaiaiko FOTO-

TEKAREN lehen emaitzak ikusgai. Arratsaldero 6,30etatik 8,30etara. Bide batez, herritarroiei bat egiten diegu, Zumaiaiko argazki zaharrak fototekarako uzteko.



30tik
14ra

Natur jardunaldiak

Zumaiaiko VII. Natur Jardunaldiak ERAKUSKETA ikusgai egongo da Oxford aretoan herriko Natur Taldeak antolatuta. Aurtengoan Energia, haren ekoizpena eta kontsumoa izango dira landutako gaiak. Erakusketaz gain hitzaldiak, diapositiba emanaldiak eta irteera bat ere antolatuko dira.

GABONAK

Gabonetako abestien lehiaketa

Aurten ere ideia eder hau aurrera eramatea pentsatu du Erkibe kultur elkarteak. Gabon arratsaldez izango da abestien lehiaketa hau.

Gabon jai ekitaldiak

Txepetxa elkarteak urtero bezala gabon jaiak ospatzeko zenbait ekitaldi antolatuko ditu. Beti bezala, Jesusen jaiotza eta erregeen kabalgata beraien esku joango da.

Gainera, ohitura den modura, ospitalera eta gaixo dauden umeen etxetara ere hurbilduko dira erregeak, hauek hala eskatuz gero behintzat

Urte zahar/berri festa

Gaueko 1etik aurrera, festa izango da Odieta pilotalekuan Basajaun taldeak alaiturik.

21

Santo Tomas festa

Arratsaldez Santo Tomas festa ospatuko da. Lauretan hasiko da Eusebio Gurrutxaga plazan, eta bertan trikitixa doinuaz gain txistorra jana izango da, noski.



29

Bertso saioa

Urtero bezala, bertso saioa izango da gabon partean. Bertsolari gazteen saioa gaueko 10etan hasiko da eta bertan izango diren sei bertsolariak hauexek dira: Aitor Mendiluze, Estitxu Arozena, Ainhoa Agirreazaldegia, Nahikari Gabilondo, Iñigo Manzisidor eta Andoni Larrañaga.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45
ZUMAIA

Telefonoa: 861485
Fax: 143143

EGUZKI
PUB
KOKTEL
BEREZIAK
Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

DUT,


"Dut" ez da nolana hiko talde bat. Batek baino gehiago talde zatatsatu eta neurrigabekoa besterik ez dela esango luke, baino ez da horrela. Gaur egun rockaren historiaren atal garrantzitsuenean barneratuak daude hondarribitar hauek, erakusten digutena ez baita edonon aurkitzen.

Thrash-a, metala, psikodelia, hardcorea eta ez dakit zer gehiago batzen direnean sortzen den fenomenoaren errudunak dira. Egiten dutena ezin da sailkatu; ezin da etiketarik jarri. Hauek dira "DUT" taldea osatzen dutenak: Xabi (kitarra eta koroak), Eneko (kitarra eta koroak), Maney (ahotsa eta scratcha), Joseba (baxua eta koroak) eta Galder (bateria, perkusioak eta koroak).

21, 19, 17, 21 eta 21 urte dituzte; harrigarria benetan, ez musikalki egiten dutenagatik, askok esaten baitute izarrak ez direla egiten jaio egiten direla baizik, baina harrigarria da bai zuzenean ikustea "konbo" hau. Badirudi bizitza osoa daramatela eszenatoki baten gainean, kontzertuak dira beren izaeraren erakusgarri aipagarriena. Lehena egin zuten eta bapatean zaparrada baten

etiketarik ez!!

Hondarribitar hauek estilo ugari nahasten dituzte



modura leku guztietatik eskeintzak jasotzen hasi ziren emanaldiak burutzeko. Ia inork ezagutu gabe *Def Con Dos*, *Negu Gorriak*, *Anestesia*, *El Inquilino eta Bap!!* bezalako taldeekin jotzeko aukera izan zuten eta ez zuten ez alferrik galdu.

Maketa eta diska

Bere baitan maketa bat, "Underribi" izeneko diskan apartazio bat (beste hiru taldeekin batera), eta *Dut* izeneko bakarkako lan bat dute. "Underribi" diska honetan Hondarribiko *Beti Mugan* (gaur egun banatuak) *Illusions* eta *Orgasmic*

Badirudi bizitza osoa daramatela eszenatoki baten gainean, harrigarria da bai zuzenean ikustea

Toothpicks taldeekin batera aurkitu ahal ditugu.

Taldeen arteko lotura guztiak hondarribitarrek izatea besterik ez da, denek musika ezberdina lantzen baitute. Bakoitzak lau kanta eskeintzen dizkigute eta kritiko batzuk azken

KOSTA GAS

GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert
ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua

expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

**GURE TXOKOA
TABERNA**

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

Ia inork ezagutu gabe Def Con Dos, Negu Gorriak, Anestesia, El Inquilino, eta Bap!! bezalako taldeekin jotzeko aukera izan zuten eta ez zuten aukera alferrik galdu

urteotan aurki dezakegun erreko-pilatorio hoberena dela esatera ausartu dira. Bakarkako lana ere ez da ahazteko modukoa. Urte honetako apirilean bukatutako lan bikain honetan 10 kantu ditu bere osotasunean. 10 kantu, *Primus*, *R.K.L.* edo *Rage Against The Machine* bezalako taldeak gogorarazten dizkigutenak.

Bibolina sartzeko beldurrik gabe, toke psikodelikoak, metal zanpatzaileak (Ni al naiz zure ni, Itxura faltsuak, Epilogo), kantu bortitzak (Sexu mugarik ez) geldi ezinak, burua galtzeko lasaiguneak (Ezjakintasanaren kateak suntsitu) edo Mikel Laboari omenaldi eginaz (Urtsua uda kantuan -paregabeko instrumentala-), guzti honek nahikoa esaten digu.

Portadaren diseinu grafiko apartak eta lehen mailako aportazioek --Eneko (*Bap!!*), Nagore (*Beti Mugan*), Kaki (grabatzaile lanetan), Bernardo (*Illusions*)-- azken urteotako euskal talde imaginatiboena borobiltzen laguntzen dute. ■



Maketak

Kashbad:

Proposamen interesgarria



Soinu Tailerren ideia errealtatea bihurtu duen herri batera eramaten gaitu ale honek, bertan landu eta grabatu baitute Kashbad taldekoek beraien lehen maketa. Oreretakoek, badakite monotonian ez dela jausi behar eta horren argibide dira grabaturik gelditu diren zortzi abestiak. Baita beraietan aurki ditzakegun melodia eta erritmo aldaketa ugariak. Hitz hutsek ez dute lekurik Sorkunen ahoan, gauza gehiegi dago esateko edo salatzeke *EzTB*, *Injustizia*, *Agresiones* ...*Mamon*. Bere ahotsa indartsua ez, baina erabat hipnotikoa da, lantzen duten hard-rock horri indar

gehiago ematen diona. Ez dute formularik errepikatzen, *Txo*, *Nazkatuta*, *Zure zain*, *Hik zer nahi dek*, denak ildo beretik joan arren bakoitza mundu ezberdin bat da eta agian guzti hortatik ateratzen den kanta bakarra *Hegaz* dugu. Reggae erritmo lasai batera jotzen dute, baina honek beste guztiek bezala milaka bira ematen ditu lehen notatik bere azken soinura arte. Bi kitarra dira, Gorka eta Iban, eta hori nabaritzen da; bestalde Baxuan Txus eta baterian Txiki daude. Proposamen interesgarri baten aurrean gaudela argi dago. Horrela pentsatuko ote dute Esan Ozenkikoek? ■

TXALAPARTA
OPARIK

Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 89
Fax. 43 06 37


LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKA

Erribera, 1 Telefonoa: 860375
20750 ZUMAIA


Abaraska

Erantzun guztiek seina letra dituzte eta zenbaki bakoitzaren inguruan kokatu behar dira, ordu-orratzen arabera, abiapuntua zenbakiaren gaineko eskubialdeko letra delarik.




- 1. Damuak
- 2. Joan den urtekoa
- 3. Pl. Pisu neurria
- 4. Ezinean
- 5. Balu
- 6. Laiaketan
- 7. Goilareak
- 8. Gorputz atal
- 9. Guztiz berotu
- 10. Ale
- 11. Ezaugarria
- 12. Luberri
- 13. Sustraiak
- 14. Uztaiak
- 15. Areatza
- 16. Urte bereko haur
- 17. Bilkura
- 18. Idi zain
- 19. Zorrak ordaindu
- 20. Basa animalia
- 21. Elefantearen muturra
- 22. Pattar
- 23. Soroa
- 24. Aldaketa
- 25. Poeta greziarra
- 26. Aran mota
- 27. Izen donostiarra
- 28. Belar idorra
- 29. Murritzak

Jeroglifikoak



Non zegoen Patxi?



Mendi ezaguna.

(1.-Zubiaren azpian)
(2.-Gorbeia)

Umorea

KOKOEk Elgoibarrenen (124. zkia)

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



... azala eta mamia!

IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!

LANTOKIAN, BULEGOAN, ESKOLAN, ETXEANEDO ZURE BETIKO DENDAN HARDEZAKEZU

HARPIDETZAK ZUMAIAN

861041 TELEFONOAN (EGUERDITAN)

AGURRAK

Iker! Azkenian lortu dezue irabaztia. Aupa Terremoto!

Larrauleko "jentuza" horrentzat. Parranda gutxiago eta 8etarako Murgilmendi edo Erniora!

Putxa! Urberuri beste bost sartu ezkeru, bertan afaria patuko diat hiri eta neskari! Hil ta Pakia.

Angel! Horrelako "linean" nola jarri haizen esplikatu behar diguk. Eutsi goiai!

Apix! Nola leike napolitana beroik ez egotia? Errotan flautak falta diala? Earra dakak hik!

Mofli, Kamatxito! Etziok hi berotuko hauen pikanteik. Hi haiz hi, gizon puska.

Amelin! Zer nolako arratoiak daude estolda-zuloan? Xatur xatorren xulora xuxenean!! Xe mouxkoa Exa xonrixa?

Kike! 100 lagunentzako olarru-zopa egiten hasi eta beste Olarru bat falta zian!

OHARRAK

Abenduaren 17an Donostian jokaturko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerako **sarrerak** laster jarriko dira salgai Inpernupe eta Zumea tabernetan.

Salmenta puntuak

Jesuskoa

Errota (Erribera)

Errota (Basadi)

Errota (Juan Belmonte)

Ogi Berri (Amaiako plaza)

Ogi Berri (Basadi)

Arkupe okindegia

Aizpurua liburudenda

Olano liburudenda

Loitz liburudenda

Alai janaridenda

Nikol kafetegia

Inpernupe taberna

Zalla erretegia

Foto Gar

Arroa Beheko estankoa

ERAKUSKETA
Jose Ramon Agirre
"MARRON"

7
LURRALDETAKO
MENDIAK

Oxford-en
abenduaren 10a
bitartean

Nepal, Tanzania, Alaska,
Kaukaso, Indonesia, Antartida
eta Argentinako 45 argazki eta
leku bakoitzeko oroigarriak

Antolatzailea:
Zumaiako AEK

Inkesta

EPEA LUZATU DA

Jesuskoa
Jatetxea



Azaro 16, 17, 18 • Oskorri Zuzendaria

Hogei inkestatik gora jaso ditugu eta benetan interesgarriak eman dizkiguzuen iritzi eta proposamenak. Baina batzuei epea "pasa" egin zaizuela ikusiz, **Jesuskoa Jatetxeak** eskeinitako bi pertsonentzako afaria, **abenduaren 15a** baino lehen jasotzen ditugun inkesten artean zozketatzea erabaki degu. Animatu, guri laguntza ederra emateaz gain, tripa dohain bapo asetzeko aukera ematen dizugu-eta.



Inkestak, betiko moduan
Foronda, ONCEko kabina,
Txapartegi, Aizpurua
liburudenda edo Foto
Mertxen utzi daitezke.
Zorte on!

L

ehiaketa Goxoa

Goxotasuna oparitzen hasi gera berriz ere, eta Gabon edo Eguberri egunerako postrea eskaintzen dizugu oraingoan. Emakume jator honen izena (eta baldin badakizue tabernarena) asmatzen dezuenean artean **Txapartegi Gozotegia**k emandako tarta eder bat zozketatuko degu. Zeure gustoko tarta, aukeran.




Epea **ABENDUAREN 22AN** amaitzen da eta betiko tokietan utzi ditzakezu erantzunak: Forondan, **ONCE**ko kabinan, Foto Murtzen Aizpurua libudendan edota Txapartegi bertan. Zorte on!

H

arpidetzak- 96

1996an gure aldizkaria etxean jaso nahi badezu, oraintxe daukazu aukera. Prezioak ez du igoyerarik izango eta urte osoko zenbakiengatik **1.000** pezeta bakarrik ordaindu beharko dira. Postaz bidaltzea gehiago kostatzen denez, kanpoan bizi diren harpidedunei, ordea, gehixeago eskatzen diegu, **1.500** pezeta hain zuzen ere. Harpidetza berria egiteko nahikoa da sobre batean izen-abizen, helbide eta telefonoarekin batera diru kopuru hori betiko tokietako batean uztea. Lehengoa berritzeko izen-abizenekin nahikoa da, eta beste aukera bat dirua **Euskadiko Kutzako 0371041244** kontu zenbakian sartzea da.



IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!!

Baleike!!